

2017KO APIRILAREN 27AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zazpia.

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hamazazpia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko laurak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2017ko martxoaren 30eko akta onartzea.

2017ko martxoaren 30eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRA ZIURTAGIRIAK:

- Zazpiburrieta, 4. arean igogailua jartzeari eta urbanizazio osagarria egiteari buruzko obren 5. ziurtagiria onartzeko proposamena.

Aho batez onartu da, Zazpiburrieta 4 arean igogailua jartzeari eta urbanizazio osagarria egiteari buruzko obren 5. ziurtagiria, **79.403,84 €**koa (BEZ barne)..

- Urbialde plazako urbanizazio obren 3. Ziurtagiria onartzeko proposamena.

Aho batez onartu da, Urbialde plaza berrurbanizatzeari buruzko obren 3. ziurtagiria, **111.480,02 €**koa (BEZ barne)..

3.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA: Beasainen euskara hizkuntza errefortzua behar duten haurrentzako zerbitzua. Baldintza plegua onartzeko proposamena eta deialdi publikoa.

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena:

“Gaia: Hizkuntza errefortzu zerbitzua kudeatzeko baldintza pleguak onartzea.

AURREKARIAK

1. 2016ko ekainaren 21ean Beasaingo Eskola Kontseiluak egindako bileran Beasaingo ikastetxeek adierazi zuten hizkuntza errefortzu beharra zuten ikasleak zituztela. Helburu horretarako ikastetxeak dituen baliabideak ez direla nahikoa.
2. Udalari eskatu zioten haur eta lehen hezkuntzako haurrei eskolaz kanpo modu ludikoan hizkuntza errefortzu hori emateko.
3. Eskaera hori kontuan hartuta, Hizkuntza Politika sailak gaia aztertu eta zerbitzu hori ikasturte baterako kontratatzeke lizitazio prozesua hasi zuen. Eta ondorioz, 2017ko ekainean 30ean amaituko da orain indarrean dagoen kontratua.
4. Zerbitzuak, ikastetxeen zein familien partetik izan duen harrera ikusita, lizitazio prozesu berri bat abian jartzea proposatzen da ondorengo baldintzekin:
 - Kontratuaren helburua haur eta lehen hezkuntzako haurrei hizkuntza errefortzua ematea da.
 - Zerbitzua jasoko dutenak ikastetxeek adierazitakoak izango dira.
 - Hartzaile bakoitzak astean 3 orduko hizkuntza errefortzua jasoko du.
 - Esleipena bi ikasturterako izango da, eta erabakia espreski hartuta, beste bi urtetarako luzatu ahal izango da, baina ikasturtez ikasturte, eta kontratuaren iraupenak guztira, bi luzapenak barne, ezin izango ditu lau ikasturte gainditu.

- Lizitazioaren prezioa:

2017/2018 ikasturtean 55.556 € + BEZa (hala badagokio).

2018/2019 ikasturtean 56.667,12 € + BEZa (hala badagokio).

Ikasturteko prezioa kalkulatzeko ondorengo hartu da kontuan:

- Zerbitzu ordu kopurua (1.161) x hezitzaile ordua (47.85€)
- Zerbitzu ordu kopurua = ordu/eguneko (9) x zerbitzu egunak (129) (lektiboak eta ez lektiboak)

Hezitzaile bakoitzeko ikasle ratioa 15 ikaslekoa da.

Gaur egun 180 ikasle daude 12 taldetan banatuta.

Luzapenik izango balitz, zerbitzuaren kostua hartuko da kontuan prezioa kalkulatzeko.

Horren ondorioz, Hizkuntza Politika Sailak ondorengo proposamena egiten dio Udal Gobernu Batzordeari:

Lehenik: Prozedura ireki bidez Hizkuntza Errefortzua emateko zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeke administrazio-baldintzen agiria onartzeko.

Bigarren: Kontratazio horretarako deialdi publikoa egitea dagokion moduan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Beasaingo EH BILDUko ordezkariak beraien desadostasuna azaldu dute proposamenarekiko, lehenengo aldiz zerbitzu hau

kontratzerakoan azaldutako arrazoiengatik, izan ere, beraien ustetan zerbitzu honen ez du asetzen aisialdiak duen esparru osoa.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH BILDU)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

4.- LOKALAREN ERABILERA LAGATZEA, AGIPASE elkarteari.

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena:

“GAIA: FAMILIA KRISIETAN ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIPUZKOAKO ELKARTEAREKIN (AGIPASE) HITZARMENA

AURREKARIAK

I. Nafarroa Etorbidea 1-E2-26an kokatuta dagoen udal lokaleko 2 gela lagatzeko eta ondorengo zerbitzuak emateko:

- *Gurasoen erantzunkidetasun orientazioa*
- *Zerbitzu juridikoa*

Hitzarmenaren edukia azterturik.

II. Udalak beasaindarrei elkartearen zerbitzuak eskuratzea erraztu nahi die; elkarteak banatze edo dibortzio kasuetan adingabeen ongizatearen babesean esku-hartzen du era pluridisziplinari baten bidez, gurasoen erantzunkidetasuna sustatu eta epaitegietan gurasoen berdintasun erreala lortzea du helburu kontutan harturik..

III.- Idazkaritza nahiz Kontu-hartzailtzako txostenak adieraziz aipatutako zerbitzua kontratatzeke ez dela legez dagokion prozedura jarraitu.

OINARRI JURIDIKOAK

- Abenduak 5eko 12/2008 legea

- Urriaren 6ko 185/2015 dekretua

-Beasaingo emakume eta gizonen Berdintasunerako 1. Plana, 2015-03-05ean Udal Batzan onartutakoa.

PROPOSAMENA

Herritarrek batzordeak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: *Ondorengo hitzarmeneko baldintzak onartzea, bertan bi alderdien betebeharrak ezartzen dira:*

-AGIPASE: I aurrekarian aipatzen diren zerbitzuak ematea.

-Udala: lokala lagatzea eta urtean 7.000€ B.E.Z. gabe, ordaintzea.

Bigarren: *Kontratu-programa indarrean egongo da 2017-01-01etik 2017-12-31arte. Gehienez 2 urtetan luzatu daiteke, guztira exekuzio epea 3 urtetakoa izango delarik. Luzapena espresuki erabaki beharko da.*

Hirugarren: *Alkateari ahalmena ematea 2017-03-01eko data duen hitzarmena sinatzeko.”*

Idazkariak adierazi du gai hau Gobernu Batzordeko gai-zerrendan sartu dela Gobernu Batzordean lokalen erabilpen-lagapenak tratatzen direlako eta onartzea proposatzen den hitzarmenaren klausuletako bat dela, hain zuzen ere, AGIPASEri lokalen erabilera lagatzea.

Jarraian ondorengo adierazi du: “faltan botatzen da txosten teknikoa non justifikatzen den kontratatu nahi den zerbitzua, Euskal Herriko Giza Zerbitzuen Legea, garatzen duen Dekretuan eta Berdintasun Planean aurreikusitakoekin bat datorrela.

Kontratazioa urtebeterako izatea proposatu da eta beste urtez luzatzeko aukerarekin. Prezioa urteko, 7.000,00 €.

Kontratuak duen estimatutako balioa, 21.000,00 €koa da (TRLCS 88 art. arabera, kopuruaren kalkuluan, luzapenak ere kontuan izan behar dira). Beraz ez da “kontratu txikia” eta horren ondorioz, konkurrentzia egon dadin lizitazio prozedura tramitatzea beharrezkoa da.

Kasu honetan, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako prozedura ez da kontuan izan. Beraz, kontratua egitea zuzenbidearen aurka joango litzateke.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da hitzarmenaren edukia eta Alkate jaunari baimena ematea ondorengo hitzarmena sinatzeko:

“Alde batetik, JUAN PABLO POUSIBET RIVAS Jauna duena eta FAMILIA KRISIETAN ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIPUZKOAKO ELKARTEA (AGIPASE)ren izenean.

Beste Alde batetik, AITOR ALDASORO ITURBE , Beasaingo Alkate-Lehendakaria.

AURREKARIAK

I-“ GIPUZKOAKO GURASO BANANDUEN ELKARTEA (AGIPASE)” izenarekin elkarte 1994ko ekainaren 29an eratu zen. Elkarte hori Eusko Jaurlaritzako Elkarte Erregistroan inskribatuta dago AS/G/04799/1994 zenbakiarekin eta IFK G20523676 da.

Bere Batzar Orokorrak 2016ko ekainaren 11an bere Estatutuak eta izendapena aldatzea erabaki zuen , aurrerantzean FAMILIA KRISIETAN ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIPUZKOAKO ELKARTEA (AGIPASE)” delarik.

Elkartearen helburua,besteak beste, zera da: Krisi egoeran dauden familietan esku-hartze disziplinar-tekoa ematea, prebentzioaren, kontentzioaren eta gatazken konponbidearen bidez, beti ere adingabeen eskubideak defendatuz. Horretarako besteak beste, ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Gurasoen erantzunkidetasun orientazioa
- Zerbitzu juridikoa

II- Beasaingo Udalak beasaindarrei zerbitzu hori eskaintzeko interesa dauka eta horretarako bere jabetzakoa duen Nafarroa Etorbidea 1, E2-26 zka duen lokalaren erabilera AGIPASEri lagatzen dio helburu horretarako.

III- Bi aldeek elkarri kontratuak egiteko eta obligazioak beren gain hartzeko ahalmena, aitortzen diote eta, kontratu hau idatzi dute ondorengo

BALDINTZAK

Lehena. Beasaingo Udalak “FAMILIA KRISIETAN ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIPUZKOAKO ELKARTEA (AGIPASE)”ri bigarren aurrekarian aipatutako lokaleko 2 gelen erabileraren lagapena egiten dio aipatutako helburuetarako.

Bigarrena. Lagapena urte 1etarako prekarioan eta dohainik egiten da; urtero luzatu daite gehienez ere 2 urte arte. Epe hori amaitzen denean, 2 gelak baldintza onetan Udalari entregatuko zaizkio.

Dokumentu honek “FAMILIA KRISIETAN ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIPUZKOAKO ELKARTEA (AGIPASE)” ematen dion erabileraren eskubidea besterenezina izango da.

Hirugarrena. Ekipamendua, energia elektrikoa, ura, garbitasuna nahiz eraikina mantentzea, Beasaingo Udalaren kontura izango dira.

Laugarrena. 2 gelak Udalaren eskura pasako dira eta kalte-ordain eskubiderik gabe pasa ere, herrian premia handiagoko beharrianetarako. Eraikina Udalaren eskura

pasatu ahal izateko kontraesan-espedita izapidetuko da eta ez bada entregatzen Udalak egokien irizten dion moduan penalizatu ahal izango du.

Aldi berean, dokumentu hau bertan behera geldituko da eta horren ondorioz, 2 gelak udalaren eskura pasatuko dira, kasu hauetan:

- 1.- Lagapen epea igaro ondoren.
- 2.- Elkartea desegiten bada.
- 3.- Lagapenaren xedea betetzen ez denean.

Bosgarrena. "FAMILIA KRISIETAN ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIPIZKOAKO ELKARTEA (AGIPASE)" elkarteak ondorengo zerbitzuak eskainiko ditu:

- Gurasoen erantzunkidetasun orientazioa
- Zerbitzu juridikoa

Aiptutako zerbitzuak lagatutako gelatan emango dira, hilabete bakoitzeko lehen asteartean psikologa eta abokatu baten bitartez; hauek hilero 8 ordu eta 3 ordu hurrenez hurren.

Era berean elkarteak egindako lana jasotzen duen urteko txostena Udalari emango dio.

Seigarrena. Beasaingo Udalak "FAMILIA KRISIETAN ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIPIZKOAKO ELKARTEA (AGIPASE)"ri urtean 7.000€ BEZ gabe ordainduko dio, aipatutako zerbitzuak emateagatik. Ordainketa 2 zatitan egingo da (ekaina-abendua), dagozkion fakturak aurkeztu ondoren.

Zazpigarrena. Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emango zaio. Aurkezpenetan eta antzekoetan ere euskarak lehentasuna izango du.

Zortzigarrena. Hitzarmena indarrean egongo da 2017-01-01etik 2017-12-31arte. Gehienez 2 urtetan luzatu daiteke, guztira exekuzio epea 3 urtetakoa izango delarik. Luzapena espresuki erabaki beharko da.

Bederatzigarrena . Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzea; bete ezean, bertako 24.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Udalak ez du diru-laguntzarik emango.

24. Artikulua- Elkarteak eta erakundeak.

2. Euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Hamargarrena.- Datu pertsonalak babesteko klausula.

A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentziasuna bermatzeko ardura izango du.

B. Elkarteak Beasaingo Udalarari datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.

C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik letozkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

Eta guztiaren adostasun frogatzat bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatu dute goiburuan aipatutako data eta lekuan.”

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkezten.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko laurak eta hamabostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.